

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresa aurrera ateratzeak hainbat kostu mota dakartza. Edozein enpresak bezala, gauzak ondo egin nahi ditugu dena aurrera ateratzeko.

Gure enpresa "famatu" bihurtzeko edo ezagutzera emateko, leku ezberdinetan egin behar dugu publizitatea, horretarako 600€-ko inbertsioa egitea erabaki dugu.

Ez da askotan gertatzen, baina batzuetan jendeak beste enpresa baten ideiak kopiatzen ditu, horregatik, hori gertatu ez dadin, patentatu egingo dugu gure produktua (300€-ko kostua izango da).



Webgune bat edukiko dugu gure produktuak saldu ahal izateko eta bezeroei beraien zalantzak argitzeko. Webgune hori edukitzeko dominioa (.com) beharko dugu, 20€ hilabeteko izango dena.

Gure lokala Urretxun, Labeaga kalean, aurkituko da. 450€ ordaindu beharko ditugu hilean; ura, argia, wifia, segurua... prezioan barne. Bertan gure produktua muntatuko dugu eta gure saltzaileei bidaliko diegu "Aircase"-a.

Hasieran, enpresa irekitzeko, BBVA-ri 1600€-ko mailegua eskatuko dizkiogu, bulegoko altzariak, kortxoa, ordenagailua, eta beharreko materialak ordaintzeko. Ondoren, hilabetearen irabaziekin itzuliko dugu diru guzti hori.

Eskala ekonomia aldetik, materialen enpresek egingo dizkigutenak soilik izango dira. Geroz eta eskari gehiago egiten ditugun heinean (materialarenak) merkeagoak saldu behar dizkigutela akordatu behar dugu. Ez dugu asko aurreztuko, baina pixka bat bai.

Gure kalkuluen arabera 1050€ kobratzen baditugu hilabetean, eta gure web orrian, Instagram-en, telebistan... publizitatea egiten lortzen duguna batzen badugu, 9.000€ -ko irabaziak izango ditugu urtean.

Euskal Herriko Enpresa

